

LITERATURA UNIBERTSALA



LEONARDO SCIASCIA

Todo modo

Gaizka Ugalde

Leonardo Sciascia
Todo modo

Gaizka Ugalde
Itzultzailea

Jatorrizko izenburua:

Todo modo

1. argitalpena: 2022ko maiatzean.

© Leonardo Sciascia Estate. Eskubide guztiak erresalbatuta. Italiako argitaletxea, Adelphi Edizioni, Milan

«Italiako literatur agentziaren eta Ute Körner literatur agentearen bidez negoziatu dira eskubideak»

© Azaleko margolanarena: 2022, Alain Urrutia

© Itzulpenarena: 2022, Gaizka Ugalde

© Hitzaurrearena: 2022, Gaizka Ugalde

© Argitalpen honena: 2022, EREIN eta IGELA argitaletxeak

Inprimatzailea: Itxaropena S.A.


ISBN: 978-84-9109-797-6

LG: D 673-2022

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu.

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

Liburu honen itzulpena Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkartearekin Literatur Ondare Unibertsaleko Obra Nagusien Bilduma euskarara itzultzeko sinatutako hitzarmenaren barruan burutu da.



LEONARDO SCIASCIA

1921-1989

HITZAURREA

Betidanik atsegin dut idaztea. Hasieran, idazteko objektuak eurak ziren; koadernoak, paperak, lumak, arkatzak, tinta. Tintaren zaporea ere badut gogoan, ia-ia edan egiten nuen...

LEONARDO SCIASCIA,
*Fuoco all'anima*¹

Plazer handiz idazten zuela esaten zuen Sciasciak, eta nabaritzen zaio esku artean duzun makina bitxi honetan. Lehen begiratuan, oso narrazio argia eta zuzena da: argumentuak bizi-bizi korritzen du, elkarriketak umore finez josita daude, karakterizazio eta deskribapenei ere ez zaie gatz eta piperrik falta, eta autoreak «preziosozko estiletea bezala» darabilen lumaz zorrotzurik dago testuan zehar garatzen den bi mundu-ikuskeraren arteko norgehiagoka filosofikoa (paradoxez eta sorpresez betea, kontakizunaren nondik norakoekin ezin hobeto inbrikatua, baita arina ere, nolabait, baina ez azalekoa: zentzu askotan, arrazionalismo frantsesaren seme dugu Sciascia, eta adierazi

¹ Sciascia, L. (1992). *Fuoco all'anima. Conversazioni con Domenico Porzio*. Mondadori (21. orr.). Apud *Amici di Leonardo Sciascia* web-gunea: www.amicisciascia.it (labur.eus/JyR1u)

nahi duenaren mugaraino heltzeko pasioak elikatzen du bere idazkera).²

Eleberriak, hala, badu saiakeratik nahiz tragikomediatik (eta *Jainkotiar Komediaren* oihartzunik), bai eta egitura sozial jakin bat irudikatze gogotik ere: haren manerak eta izaerak, haren erritoak, morrontzak eta elkar hartzeak, haren azaleko eta barneko engranajeak. Beste aldean, kontrapuntu gisa, eleberriaren hasieran askatasun-ekintza baten aukerari noiz heltzeko espe-roan alderrai aurkezten zaigun narratzailearen ahotsa dago, «bakarkako gizonaren musika ukigabe eta barea», artistaren begirada.

Denboraz gaineko elkarrizketak

Narratzaile horren barne-munduan eta pertsonaia nagusien arteko hartu-emanetan rol garrantzitsua jokatzen dute historiak, arteak eta literaturak. Idazle bezain irakurle (eta artezale) porrokatua baitzen Sciascia, eta hortik zetorkion erreferentzien esparru zabala jokoan jarri eta eragiketa literario konplexuak ehuntzeko sena. Vila-Matasen erara esateko, Montanoren gaitza zerion poroetatik. Eta izan ere, Michel de Montaigne dugu gehien markatu zuten idazleetakoa bat, haren eszeptizismo arrazionalistagatik ez ezik, zoriontasuna liburuetan

² Alberto Moraviaren ñabardura: «Laburki esateko, bere iluminista maitteen alderantziko metodoarekin jokatzen zuen Sciasciak: misteriotik egia eta arrazoimenera abiatzen ziren haiek; Sciascia, ordea, egiatik eta arrazoimeneratik misteriora». Moravia, A. (1989). «Un illuminista alla rovescia». *Corriere della Sera*. Azaroak 21.

bilatzearen hautuagatik. Hala, Sciasciaren hitzetan, «*Essais* da inoiz idatzi den libururik dohatsuen».³

Ikus ditzagun haien eragina jaso eta solaskide literario bilakatu zituen beste autore batzuk. Bere argudiatzeko estilo gardenaz gaztetatik liluratu zuen Denis Diderot. Justizia sozialarekiko grina esnatu zion Victor Hugo. Alessandro Manzoni, bere ibilbide osoan zehar gehien maite izan zuen idazlea, historiara eta errealitatera hurbiltzean jarraituko zuen ildo. Luigi Pirandello, itzal handikoa berarentzat, garai batean «obsesioa» bilakatzeraino, aldi berean maite eta gorroto zuen «aita» siziliarra: «Esaten saiatu naizen guztia Pirandellori buruzko diskurtsoa izan da niretzat; hasieran, molde liskartsuan, eta baita nolabaiteko herraz ere agian; adeitasunez eta soseguz, geroago».⁴ *Adorable Stendhal*:⁵ horra Sciasciak Henri Beyleri buruz idatzitakoekin Maria Andronico alargunak osatu zuen hilondoko liburuaren izenburua. Eta André Gide: «Gure mendearen lehen erdiaren bueltan Europak izan duen intelektual egiazkoena eta handiena».⁶

Bere belaunaldikoen artean oso estimu handian zituen, eta eskutitzen bidezko harreman estukoak, hala Italo Calvino (urte askoan, argitaratzaile lanetan zelaririk, berak jasotzen zituen Sciasciaren eskuizkribuak, eta oparotasunez iruzkintzen), nola Pier Paolo Pasolini

³ Sciascia, L. (1986). *La strega e il capitano*. Bompiani (87-88. orr.). Apud *Amici di Leonardo Sciascia* web-gunea: labur.eus/JyR1u

⁴ *Amici di Leonardo Sciascia* web-gunea: labur.eus/YVCrn

⁵ Sciascia, L. (2003). *L'adorabile Stendhal*. Ed: Maria Andronico Sciascia. Adelphi.

⁶ Onofri, M. (2021). *Storia di Sciascia*. Inschibboleth (230. orr.).

(funtsean gauza berberei buruz aritzen zirela esan zuen Sciasciak –nahiz eta berak «leunago jardun»–, eta Italian izan zitzaketen benetako solaskide bakarrak zirela bata bestearekiko; halako moldez non haren heriotzaren ondoren «altuago hitz egiten» atzematen baitzuen bere burua).⁷

Nazioarteko mailan, Jorge Luis Borges irakurle amorratua zen, eta ugariak dira bere jardun propioaz aritzean egin zizkion erreferentziak. Argentinarraren idazlanen kalitatea alde batera utzita ere, ez da harritzekoa, afinitate handia baitute bi-biek historiarekin eta generoekin egiten dituzten jolas sofistikatuek, saiakeraren eta narrazioaren arteko muga lausotuan. Oso begiko zuen Friedrich Dürrenmatt ere, zeinak, berak bezala, botere judizialaren zilegitasunaren eta zientziaren ondorioen gaiak landu baitzituen, groteskoaren ukituarekin.

Eleberri beltzean, Graham Greene eta Georges Simenon hartzen zituen erreferente modura, eta, teknika ez ezik, batak zein besteak zerabilten ironia atsegin zuen bereziki. Era berean, eta nahiz eta kasuak ebazteko moduarekin konforme ez egon, asko ikasi zuen Agatha Christierengandik, generoaren josturak alde guztietatik leherrarazteko bazen ere (Carlo Emilio Gaddak *Quer pasticciaccio brutto de via Merulana*⁸ eleberrian egindakoaren bidetik). Istorioak narratzeko egiturarik egokiena irizten zion, izan ere, polizia-nobelari: bere

⁷ Collura, M. (1996). *Il Maestro di Regalpetra. Vita di Leonardo Sciascia*. Longanesi (137. orr.)

⁸ Gadda, C.E. (1957). *Quer pasticciaccio brutto de via Merulana*. Garzanti.

ikuspegian, eskema transzendental baten arabera gartzzen da, zeinean Jainkoaren existentzia auresuposatzen baita, ikertzaileak grazia argigilearen eramailearen rola hartzen duelarik.⁹

Auguste de Villiers de L'Isle-Adamekin itxikodut zerrenda, Sciasciaren epitafioaren egilea: «*Ce ne ricorderemo, di questo pianeta*».

Leonardo Sciascia
Todo modo

Egiatan, gauza guztien kausa ona adierazteko berdin balia daitezkeenez hitz asko, gutxi, edo bat bera ere ez, haren diskurtsorik eta ezaguerarik ez dago eta, sustantziaz gaindi transzenditzen baita guztia, eta gauza puruak zein ezpuruak zeharkatzen dituztenei besterik ez baitzaie agertzen hura egiazki eta belorik gabe, noiz eta, santutasun goreneko gailur guztiak gainditurik eta argi jainkotiar oro nahiz zeruko soinuak eta hitzak abandonaturik, iluntasunean murgiltzen direnean, han baitago benetan, Eskriturak dioenez, gauza guztien gainerikoa... Eta diogu kausa hura ez dela ez arima ez gogoa; ez duela irudimenik ez iritzirik ez arrazoirik ez pentsamendurik; ezin da adierazi edo pentsatu. Ez da zenbakia ez ordena ez handitasuna txikitasuna berdintasuna desberdintasuna antzekotasuna desantzekotasuna. Ez da mugiezina ez mugikorra; ez dago pausatuta eta ez du potentziarik, eta ez da potentzia ezta argia ere. Ez da bizi eta ez du bizitzarik: ez da substantzia ez aroa ez denbora; ez dago harengandiko irakaspen intelektualik. Ez da zientzia eta ez egia, ez errege-ahalmena eta ez jakintza; ez da bat, ez jainkotasuna edo ontasuna, ez da espiritua, espirituaz dugun nozioaren arabera. Ez da filiazioa ez aitatasuna ezta guk edo beste zernahi izakik atzemandako beste ezer ere. Ez da izatearena den ezer ezta ez-izatearena den ezer ere; izakiek ez dute hura ezagutzen bere baitan den moduan, hark izakiak izaki gisa ezagutzen ez dituen era berean. Ez da ematen haren kontzepturik ez izenik ez ezaguerarik; ez da ilunpe eta ez argi, ez da errete eta ez egia...

DIONISIO AREOPAGITA,
De mystica theologia

Ahalkearen azken beloa erortzen utzi zuen,
San Klemente Alexandriakoa aipatzeko.

CASANOVA,
Nire bizitzaren historia

«Oihartzun handiko definizio baten arabera, askatasun ekintza bati esekitako kausalitate-katea da unibertso kantiarra», dio gure garaiko italiar kritikari nagusiak, «horren antzera laburbildurik, unibertso pirandelloarra zera izan liteke, musikaririk gabeko mundu batean egindako morrontza etengabea, musika-aukera infinitu bati esekia: *bakarkako gizonaren* musika ukigabe eta bareari».

Uste nuen banuela korritua, *à rebours*, kausalitate-kate oso bat; itzulia nintzela, bakarkako gizon, haurtzaroko, nerabegaroko une jakin batzuetako musika-aukera infinitura: udan, landan, ur eta zuhaitz artera tarte luzean aldentzen nintzelarik, toki urrun eta helezina zela itxurak eginez, bizitza guztia –iragan laburra eta etorkizun luze-luzea– orainaldiaren askatasunarekin musikalki eta infinituki bateratzen zenekora. Eta arrazoi askorengatik, horien arteko azkena ez zela leku pirandelloarretan jaio eta urteetan bizi izana, pertsonaia pirandelloarren artean, trauma pirandelloarrekin (idazlearen orrialdeen eta gaztarora arte bizitakoaren artean alderik ez egoteraino, ez oroime-nean ez sentimenduetan); arrazoi askorengatik, beraz, gogoan erabiltzen nuen, gero eta zehatzago (hainbeste,

non egiaztatu barik transkribatzen dudan orain) kritikariaren esaldia: esaldi edo motibo gisa, preseski, nire eskura zegoen musika-aukera infinituarena. Edo, behintzat, nire eskura zegoela uste nuenarena.

Sinpleago esanda: ez nuen laneko edo sentimenduko eginbeharririk; baneukan zerbait, gutxi edo asko (baina gutxi zelako itxurak egiten nituen), beharrizan edo gutizia oro asebetetzeko bidea ematen zidana; ez nuen programarik, ez helbururik (jateak eta loak momentuan jarritakoez aparte); eta bakarrik nengoen. Ezinegonik ez, kezkarik ez. Beti izan ditudan horiek ez bada, ilunak eta menderaezinak, bizitzearenak eta bizitzarakoak; eta haietan txertatzen eta adarkatzen ziren edonola ere burutu behar nuen askatasun-ekintzagatiko ezinegona eta kezka, arinak eta arinki sorgortuak alabaina, ispilu-joko baten barruan barenngo bezala: ez obsesiboa, baizik eta zeharkatzen nituen oraina eta lekuak bezain argitsua eta geldoa, nire askatasun-ekintza agertu bezain pronto, edo neuk agerrarazi nahi bezain pronto, hura errepikatzeke eta biderkatzeke prest nindoala.

Automobilez ibiltzen nintzen. Eta garraiobide hau, normalean gaitzesten eta oso gutxitan baliatzen nuena, nire askatasunaren parte bihurtu zen aske izatea erabaki nuen unetik. Ez nuen azkar gidatzen, sarritan izaten nituen deskuiduek kalterik ez egiteko moduko patxadaz baizik. Eta, hain zuzen ere, abiadura motelak eta gidatu bitartean inguruan begiratzearen plazer geldoak eman zidaten, biratzen ari nintzela, *Zafer Ermita 3* esaten zuen idazkuna, beltza horiaren

gainean, atzemateko parada: horren atzetik abiatu ziren, ugazaba batengana bezalaxe, nire ezinegon hura, nire kezka hura. Automobila gelditu eta atzera lerratu nuen poliki, taula hori-beltza begien aurrean izan nuen arte. *Zafer Ermita 3*. Ermita hitza, *Zafer* izena, 3 zenbakia: era berean eta modu desberdinean iradokitzaileak gertatzen zitzaizkidan gauzak. Eta hiru gauza izateak iradokitzailetik zuena gehituta, errepikatzen zen hiru hori, eta baita hiru egun zirelako ere, hain justu, aske eta alderrai nembilela (aitortzen dut hirutasun-neurosi txiki baina tinko baten eraginpean nagoela, nola sortu eta egonkortu den ez dakidala). Bakardade-eremua da ermita; eta ez bakardade objektibo bat, naturakoa, konpainian egonda hobeto ezagutzen eta gehiago estimatzen diren horietakoa: toki bakarti eder bat, esan ohi den bezala; baizik eta beste bakardade gizatiar baten ispilu den bat, sentimenduz, meditazioz eta agian eromenaz ere inpregnatua. Eta Zaferri dagokionez: eremutar musulmana ala kristaua? Eta hiru kilometrorra zegoen: bakarrik, zehazki eta justuki. Kaletxo asfaltuan sartzeko maniobra txikia egin (eta asfaltoak erne jarri beharko nindukeen) eta aldapan gora jo nuen. Artelatzeak eta gaztainondoek galeria eratzen zuten, isats berantiarren usaina zuen aireak. Eta bat-batean, patio zabal-zabala, hura ere asfaltatua, alde batetik porlanezko barrakoitzar moduko batek itxia, leiho estu luzexkek zatarki zulatua. Gelditu egin nintzen, etsiturik eta amorraturik; kaleak aurrera egin zezakeenik ez zirudienez, munstrokeria horixe izan behar zen orduan ermita. Hotel bat, seguru asko. Zalantzan geratu

nintzen apur batean: atzera egin automobiletik jaitsi gabe, edo jaitsi, inguruan begiratzeko eta galdetzeko ea nork ezarri zuen han barrakoitzar hori, eta zergatik. Jakin-minak irabazi zuen; eta baita jasotako etsipenetik ordaina hartzearen plazerak baten bati adieraztean –hutsik bazirudien eta erabat isilik bazegoen ere, baten batek egon behar baitzuen han barruan– ermitaren lekuan hotela aurkitzeak eragiten zidan haserrea. Automobiletik jaitsi eta giltzarekin itxi nuen, isiltasunak aire misteriotsua eta makurra baitzuen. Eraikinaren Erdiko atea, handia, beiraduna, zabalik zegoen. Sartu, eta hantxe nengoen, uste bezala, hotel bateko atarian. Harreragilearen lekuan, kutxatilategi giltzez betea atzean zuela, apaiz bat zegoen. Gaztea, beltzarana, tximaluzea. *Linus* irakurtzen zegoen. Ni sartzen ikustean, asperduraz itzali zitzaion begirada. Nire agurrari ahotsik gabe erantzun zion, ezpainak mugituz.

–Barkatu: ermita da hau, ala hotela? –galdetu nuen nolabaiteko biolentziaz eta ironiaz.

–Ermita eta hotela.

–Zafer ermita?

–Zafer ermita, hain zuzen.

–Eta hotela?

–Hotela, zer? –oso gogaiturik.

–Hotelak nola du izena?

–Zafer. –Eta hitzak ondo bereiziz, oroimenean iltzatuko balizkit bezala–: Zafer hotela.

–Zafer ermita, Zafer hotela. Ondo. Eta nor zen, Zafer?

–Eremutar bat, jakina: hau ermita bat zen eta.

–Zen –azpimarratu nuen.

–Da.

–Zeuk esan duzu: zen... Edonola ere: eremutar musulmana?

–Nola ba musulmana: zure ustez musulman bat ohoratzeari eutsiko genioke?

–Eta zergatik ez? Ekumenismoa...

–Ekumenismoak ez dauka zerikusirik... Musulmana izandakoa zen, eta gero egiazko federa aldatu zen.

–Egiazko fedea: esamolde musulmana da hau, baina. –Bera gogaitzen segitu nahi nuen.

–Hala izango da –esan zuen apaizak: eta begirada *Linusen* gainean jarri zuen berriro, bera aspertzen eta eragozten ari nintzela uler nezan.

–Eragozpenik ez baduzu –preseski eragotzi nahi nuela adierazteko enfasiaz–, zer edo zer jakin nahi nuke Zaferri buruz, ermitari buruz... Eta hotelari buruz.

–Kazetaria zara?

–Ez. Zer ba?

–Kazetaria bazara, denbora galtzen ari zara: eskandalua pasatua da dagoeneko.

–Zer eskandalu?

–Hotelaren ingurukoa: ez zela egin behar, itsusia dela... Pasatua da dagoeneko: badira hiru urte.

–Ez naiz kazetaria. Eta gustatuko litzaidake eskandaluaren gainean ere zerbait gehiago jakitea.

–Zer dela eta?

–Beste eginbeharririk ez daukat. Eta ezta zeuk ere, ikusten dudanez.

Linusi begirada bat bota zion, itxaropenik gabekoa jadanik.

–Egia esan –adierazi zuen–, izango nuke, bai, eginbeharren bat.

–Alegia? –galdetu nuen: lotsagabeki, probokatzaille.

«O...» esan, eta eskuarekin keinu bat egin zuen, egin behar zituen gauza guztiak barne hartzen zituena, auskalo zenbat denboraz eta zenbat nekez murgildu beharko zen anabasa izugarria: eta horrexegatik, probarako fresko mantentze aldera, irakurtzen zuen *Linus* bien bitartean.

Esan egin nion. Zirikatutik sentitu zen, baina adeitsuago jarri.

–Zer nahi duzu esatea? Eskandalutik, hau da, egunkari jakin batzuek eta politikari jakin batzuek gauzak aurkezteko izan zuten modutik, ezer gutxi dakit... Izan, izan zela: eta kito... Ermita bat zegoen: etxe baten aurriak, gaizki mantendutako elizatxo bat; eta On Gaetanok, orain dela hiru urte, hotel hau altxatu zuen... Errepublikak paisaia babesten du, badakit; baina On Gaetanok Errepublika babesten duenez... Laburbilduz, betiko kontua. –Irribarre garratza egin zuen. Ez zen ulertzen begitan hartzen zuena On Gaetano zen edo Errepublika.

–Eta nor da, On Gaetano?

–Ez dakizu On Gaetano nor den? –erdi txunditurik, erdi sinesgogor.

–Ez dakit. Jakin beharko nuke?

–Esango nuke baietz. –Dibertitzen hasita zegoen.

- Eta zergatik?
- Bada, egin dituen gauzengatik, egiten dituenengatik...
- Hotel hau egin du: mota honetakoak al dira egiten dituen gauza guztiak?
- Hotel hau egin du, nolabait esateko, esku ezkerrez.
- Eta eskuinaz?
- Eskolak: dozenaka, ehunka agian. Edonon. Maila guztietakoak. Baita unibertsitate bat ere.
- Ehunka eskola eta hotel bat.
- Hiru hotel.
- A, hiru hotel. Eta ermitak suntsituz, betiere?
- Ez ditu ermitak suntsitzen, barne hartu baizik. Hemen, bere horretan dago Zafer ermita. Kripta bihurtuta orain.
- Eta ikus daiteke?
- Ikus daiteke, bai. –Nekezko hasperena egin zuen, ikusteko eskatuko niola iragarrita.
- Ez nion eskatu.
- Eta On Gaetano? –galdetu nuen.
- On Gaetano, zer?
- On Gaetano ere ikus daiteke?
- Noski: hemen dago. Uda osoa ematen du. Egin dituen hotelen artean, estimu handiengan du hau.
- Eta zergatik?
- Ez dakit. Agian haurtzaroko oroitzapenek lekuarekin lotzen dute. Edo agian hura eraikitzeke egin behar izandako gerra luze... baina azkenean irabaziak.
- Jakina, ezin zuen irabazi besterik egin.

–Bada, bai, ezin zuen irabazi besterik egin –bat etorri zen. Tonua harroa zen, baina ahalke puntu batekin.

Eskuin-esker biratu nintzen.

–Lasaia bai, lasaia da –esan nuen–. Erosoa ere bai?

–Hotela? Eroso-erosoa.

–Egun bat edo beste gera ninteke –esan nuen.

–Ezinezkoa da.

–Dena beteta, ala? –ironikoki: huts-hutsik baitzitudien, eta baitzegoen.

–Une honetan, zerbitzuko langileak barne, hogei-ta bat gara. Baina etzi heltzekoa da betekada.

–Bezero guztiak kolpera heltzen dira?

–Bezero bereziak dira. –Geldiunea egin zuen.

Ondoren, sekretu bat esango balit bezala–: Gogo-jardunak.

–O, gogo-jardunak –oparitzen zidan konfidentziaren araberrako txundidura antzetzuz. Baina, egia esan, pixka bat txundituta banengoen. Urteak ziren, urte asko, ez nuela gogo-jardunei buruz entzuten; dagoeneko egiten ez zirela uste nuen. Asko hitz egiten zen umea nintzenez, misio paulinoak herrira heltzearekin batera: urteroko gertaera garrantzitsua zen hura, *Petito-D’Aprile* opereta-konpainiaren edo *D’Origlia-Palmi* konpainia dramatikoaren etorreren parekoa; eta horiek bezain puntuala. Paulinoek guztiontzat egiten zituzten predikuak, gutxi batzuentzat gogo-jardunak; eta amaitzeko, burdinazko gurutze bat altxatzen zuten periferiako lekuren batean, misioaren oroigarri gisa: eta alde egiten zuten. Gogo-jardunez entzun nuen

azken aldia gerraostean izan zen: hauteskundeak gertu zeudela, lehenengo haiek, aita domingotar bat etorri zen predikatzer, eta hainbeste berotu zien gogoa hezkuntzaren eta administrazioaren sektoreetako gizoni, ezen bere atzetik joan baitziren aste oso bate-rako, jainkozale aberats batek eskura jarri zion jauretze batera. Eta polita izan zen masoiak ere joan zirela, eta baita masoiak ez zirenak bezain mehe itzuli ere, hala gorputzean nola espirituan.

–Gogo-jardunak –errepikatu zuen apaizak–. Urtero, puntualki: uztailaren azken igandean hasten dira txandak.

–Eta zenbat irauten du, txanda batek?

–Astebete.

–Eta zenbat txanda dira?

–Hiru, lau. Iaz arte hiru, aurten lau.

–Fededunek gora egin dute.

–Bai, noski –esan zuen apaizak: baina formalki.

Bazuen zalantzaren bat. Eta konfidentziara itzulita–: Baina lehen txanda da garrantzitsuena.

–Zergatik?

–Parte hartzen duten pertsonengatik. –Eta aha-peka, konfidentzia are gehiago estutuz–: Ministroak, diputatuak, banketxetako presidente eta zuzendariak, industrialariak... Eta baita hiru egunkari-zuzendari ere.

–Benetan garrantzitsua –esan nuen–. Eta oso gustura geratuko nintzateke, bada, hemen, pertsona horiek gogo-jardunak egiten dituzten bitartean.

–Ezinezkoa.

–Ulertzen dut... Baina gaur eta bihar, oraindik heltzeke dagoela betekada, zeuk diozun bezala: gera ninteke, ezta?

–Teorian.

–Eta praktikan?

–Praktikan, betiere On Gaetanok onartzen badu, beharrezkoa da molda zaitezen, egoki zaitezen: zerbitzuetan gabeziak daude; eta sukaldea, bestalde...

–Eta ni izango nintzateke, nolabait esateko, ordaintzen duen bisitari bakarra?

–Bakarra ez, beste bost ere badaude. –Eta haserrearen eta misterioaren artean–: Bost emakume.

–Zaharrak eta atzerritarrak –esan nuen.

–Bada, ez: ez dira zaharrak eta ez dira atzerritarrak.

–Baina, bakarrik daude?

Tximista maltzur batek zeharkatu zion begirada; eta, eskuak garbituz bezala, esan zuen:

–Bakarrik heldu dira.

–Baina zeuk benetan bakarrik ote dauden zalantza egiten duzu.

–Ez, ez... –makal. Eta formalki konpontze aldeara–: Zera esan nahi nuen: bakarrik heldu dira, baina orain batak besteari lagun egiten dio.

–Neu izango nintzateke orduan seigarrena.

–On Gaetanok zer dioen entzun beharko genuke.

–Entzun dezagun.

–Orain ez. Geroago, errefekzioaren orduan. Ez da hura gogaitu behar bere baitan bilduta dagoenean:

hemen azpiko kaperan dago. –Erakuslea zorura zuzendu zuen.

–Zafer ermitan –esan nuen.

–Hain zuzen ere... Bitartean, zeure kasa mugiz zaitezke: barrutik zein kanpotik. –Elkarrizketa erremediorik gabe amaituta zegoen: haren begiek *Linusen* hartu zuten lur berriz ere, irrikaz.

Kanpora joan nintzen: patiotik harago, basora. Hoteletik urrutiratu ahala, argalagoak ziren zuhaitzak, freskoagoa eta erretxin usain biziagokoa airea. Bakardadea perfektua zen. Eta nire buruarekin perfektio horretaz ari nintzela, eta hura gozatzeko neukan askatasunaz, eguzki laku moduko bat ikusi nuen, eta bertan mugitzen ziren koloreak. Erresalbus gerturatu nintzen. Soilgunean, eguzkipean, emakumeak zeuden bikinia jantzita. Hoteleko horiek ziren, ezbairik gabe, apaiz gazteak aipatutakoak. Bost, hain zuzen. Pixka bat gehiago hurbildu nintzen, isilean orain ere. Haiek ere isilik zeuden: belus-antzeko xukadera koloretsuetan etzanda, lau; bestea, aldiz, eserita, irakurketan murgildurik. Agerpena zen. Zerbait mitikoa eta magikoa. Guztiz biluzik irudikatzeko (eta ez zen zaila), ni nengoen basoko itzal ilunaren eta haiek zeuden gune eguzkitsuaren artean, kolore haiekin, lilurazko gelditasun harekin, Delvauxen koadro bat izango zen egokia (eta ez nirea, inoiz ez baitut jakin emakumea mitoan eta magian ikusten, ezta jarrera gogoetatsu edo ameslarian ere). Delvauxena zen disposizioa, haiek nire begitik hartzen zuten perspektiba; eta baita ikusten ez zen baina neuk banekien beste gauza hori ere: apaizen

eskuetan zegoen barrakoitzar estali horretan zeudela, bakarrik. Espiatzen geratu nintzen apur batean: gorputz ederrak zeuzkaten. Lau ilehoriak ziren, bat beltzarana. Beren eguzkitako betaurrekoek ez zidaten ederrak ziren ikusten uzten; eta distantziak ere ez, nire presbizia gorabehera.

Aitortu behar dut abenturaren aukerarekin atse-gin hartu nuela; eta zoriontsu sentitu nintzela beren konpainiaren erdian nire burua irudikaturik, pixka bat lehenago bakardade perfektuan sentitzean bezainbeste, edo are gehiago. Baina urrutiratu egin nintzen, hotel aldera itzultzeko.